



BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURU

ANDREA

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren osoko bilkurak, 2021eko uztailaren 28an egindako bileran, ertzean adierazitako kideak bertaratu direla, zure **kontsulta** aztertu du, 136/2021 zenbakiarekin erregistratu baita; hain zuzen ere, **AUKERAK, Agencia Vasca de Reinserción Social/Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzeko lege-aurreproiektuaren gainekoa (Erref.: DNCG_LEY_6767/21_10).**

Eztabaidatu eta gero, irizpen hau eman du, aho batez. Beitia Ruiz de Arbulo batzordekide jaunak adierazi du Batzordearen iritzia.

BATZORDEBURUA:

Sabino Torre Díez jauna.

BATZORDEBURUORDEA:

Xabier Unanue Ortega jauna.

BATZORDEKIDEAK:

M.^a Teresa Astigarraga Goenaga andrea.

Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jauna.

Iñaki Calonge Crespo jauna.

Miren Izaskun Iriarte Irureta andrea.

M.^a Jesús Urkiola Mendibil andrea.

IDAZKARIA:

Jesús M^a Alonso Quilchano jauna.

132/2021 IRIZPENA

AURREKARIAK	2
AURREPROIEKTUAREN DESKRIBAPENA.....	3
BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA	6
KONTUAN HARTZEKOAK.....	6
I Eskumenak eta arau-esparrua	6
II Aurreproiektuaren prestakuntza eta izapidetzea	14
III Aurreproiektuaren edukiaren azterketa.....	22
IV Araugintza-teknika.....	37
ONDORIOA	38



AURREKARIAK

1. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2021eko uztailaren 13ko Aginduaren bidez –hurrengo egunekoa du sarrera-erregistroa Batzordean–, kontsultarako aurkeztu da AUKERAK, Agencia Vasca de Reinserción Social/Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzeko lege-aurreproiektua.
2. Agindu horrek kontsultaren presazko izapidetzea eskatzen du, prozedura izapidetzeko izandako presarekin bat etorritz, organo beraren 2021eko ekainaren 1eko Aginduaren bidez deklaraturia.
3. Zehazki, nahitaezkoa da nortasun juridiko propioa duen erakunde bat edukitzea, zeinak funtzionamenduan egon beharko bailuke 2022ko ekainaren 1a baino lehen, Administrazio nagusitik bereiz, Estatuko *Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo* erakundeak betetzen zuen enplegatzaile-jarduna bete dezan espetxeetan barneratuta dauden gutxienez 354 langileri begira.
4. Batzordeburuak eskaera onetsi du, 2021eko uztailaren 14ko Ebazpenaren bidez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 26.3 artikuluan oinarrituta.
5. Igorritako espedientea, lege-aurreproiektuaren testuaz eta aipatutako eskaera-aginduz gain, honako agiri hauek osatzen dute:
 - a) Agindua, 2021eko ekainaren 1ekoa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio Agencia Vasca de Reinserción Social/Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzeko legearen aurreproiektua egiteko prozedurari.
 - b) Justifikazio-memoria, 2021eko ekainaren 3koa.
 - c) Agindua, 2021eko ekainaren 3koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez aldeztu aurretiko onespina ematen baitzaio Agencia Vasca de Reinserción Social/Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzeko legearen aurreproiektua egiteko prozedurari.
 - d) Aholkularitza Juridikoaren txostena, 2021eko ekainaren 4koa.
 - e) Lan Harremanen Zuzendaritzaren txostena, 2021eko ekainaren 7koa.



- f) Emakunderen ofizioa, 2021eko ekainaren 10ekoa, jakinarazten duena ez dela beharrezkoa generoaren araberako inpaktuari buruzko txostena egitea.
- g) Memoria ekonomikoa, 2021eko ekainaren 25ekoa.
- h) Lege-aurreproiektuaren izapidetze-memoria, Kontrol Ekonomikoko Bulegora igortzekoa, 2021eko ekainaren 25ekoa.
- i) Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren 032/2021 txostena, ekainaren 25ekoa.
- j) Aurrekontu Zuzendaritzaren txostena, 2021eko uztailaren 6koa.
- k) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren (KEB) txostena, 2021eko uztailaren 7koa.
- l) Lege-aurreproiektuaren izapidetze-memoria, 2021eko uztailaren 13koa, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari igortzekoa.
- m) Txosten ekonomiko osagarria, 2021eko uztailaren 14koa.

AURREPROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

- 6. Aztergai dugun lege-aurreproiektuaren xedea da AUKERAK, Agencia Vasca de Reinserción Social/Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzea, espetxe-legeria betearazteko eskumena duen Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa, Euskadiko espetxeetan dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea errazteko.
- 7. Zioen azalpena, artikulua bakarra, bederatzi lerrokada dituen, xedapen gehigarri bat eta bi azken xedapen ditu.
- 8. Zioen azalpenak, Espainiako Konstituzioaren (EK) 25.2 artikulua edukia aipatu ondoren, azaltzen du askatasunaz gabetzeko zigorrak dituzten pertsonak birgizarteratzeko tratamenduaren funtsezko elementua dela lan-merkatuan bilatzen diren trebetasun profesionalak, lan-esperientzia eta autoestimua garatzeko aukera erraztea, behin aske utzita enplegu ordaindua aurkitzeko aukerak handitze aldera.
- 9. Hala arautzen dute bai Espetxeen Lege Organiko Orokorrak eta hura garatzeko erregelamenduak, bai eta nazioarteko arauak ere, hala nola giltzaperatu edo barneratuen tratamendurako Nazio Batuen gutxieneko arauak (Nelson Mandela arauak) edo Europako Kontseiluko Ministroen Komitearen Rec (2006) 2-rev gomendioak, Europako Espetxe Arauei buruzkoak, 2006ko urtarrilaren 11n onartu, eta 2020ko uztailaren 1ean berrikusi eta aldatu baitzuten.



10. Bestalde, uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretuak araututako zigortuen izaera bereziko lan-harremanaren arabera, espetxetik juridikoki bereizitako enplegatzaile publiko bat eskatzen da. Ez dago lan-harremanik barneratuen jarduera osagarriak badira, espetxeak berak antolatuak. Horregatik, Estatuan espetxe-eskumenak dituzten administrazioek erakunde publiko bereziak sortu dituzte, barneratuen enplegatzaile gisa jarduteko eta merkatuan aritzeko, barneratuek garatzen dituzten produkzio-jarduerei dagokienez.
11. Ondoren, arlo horretako estatutu-eskumena eta eskualdatzea aipatzen dira, eta 2021eko urriaren 1ean izango du eragina. Hala ere, *Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo* Estatuko erakundeak kudeaketari utsiko dio ekitaldia amaitu arte, hark kudeatutako tailerrei jarraipena eman ahal izateko, haren baliokide autonomikoa sortu bitartean.
12. Aurrekari horiek kontuan izanda, beharrezkoa da Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzea –AUKERAK izena izango du– zuzenbide pribatuko erakunde bereizi gisa, enplegatzaile gisa ekin diezaion askatasunaz gabetzeko zigorretara kondenatutako pertsonen lanarekin, lanerako prestakuntzarekin edo gizarteratzearekin zerikusia duen guztiari.
13. Zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren formulara jotzeko arrazoiak ere azaltzen dira, bai eta erakunde hori Autonomia Erkidegoak *Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo* Estatuko erakundeak betetzen dituen funtzioen kudeaketa benetan bere gain hartu baino nahikoa lehenago sortu eta jarri behar dela ere.
14. Martxan jarri nahi den ereduari dagokionez, honela adieraz daiteke: «Eredu horren oinarria ez da zigorra bete bitarteko okupazio hutsa, baizik eta gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideak definitzea, kontuan hartuta pertsona bakoitzaren trebetasunak eta bokazioa, bai eta genero-ikuspegia, politika publikoen integrazioa eta komunitate-eremuko gizarteratzea ere. Azken dimentsio horrek barne hartzen du orientazioa ematea eta lagun egitea kondenaren azken fasean edo erdi askatasuneko erregimenean, bai eta beste zerbitzu publiko batzuekin eta barneratu ohientzat hirugarren sektorean dagoen sarearekin lotzea ere».
15. Artikulu bakarra, AUKERAK, Agencia Vasca de Reinserción Social/Gizarteratzeko Euskal Agentzia sortzea izenekoa, 9 lerrokadatan banatzen da.
16. 1. lerrokadak Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzen du, AUKERAK izenarekin, espetxe-legeria betearazteko eskumena duen sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa, Gasteizen duena egoitza.
17. 2. lerrokadak adierazten du AUKERAK zuzenbide pribatuko erakunde publikoei aplikatu beharreko lege-xedapenek eta haren estatutuek arautuko dutela, eta



Estatutuok Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez onartuko direla, Eusko Jaurlaritzan espetxe-legeria betearazteko eskumena duen sailak proposatuta.

18. 3. lerrokadak adierazten du AUKERAK agentziaren helburua izango dela Euskadiko espetxeetan barneratuta dauden pertsonen gjarteratzea eta laneratzea erraztea. Hori lortzeko, AUKERAK agentziari dagozkion funtzioak zerrendatzen dira.
19. 4. lerrokadak adierazten du AUKERAK agentzien gobernu-organoak honako hauek izango direla: Lehendakaritza, Administrazio Kontseilua, Zuzendaritza Nagusia eta bere estatutuetan ezartzen diren gainerakoak. Estatutu horietan arautuko dira organo horien eginkizunak, osaera eta kideen izendapena, bai eta erakundearen egoitza, egitura organikoa eta funtzionamendu-araubidea ere.
20. 5. lerrokadak xedatzen duenez AUKERAK agentziako lanpostuak hauek beteko dituzte: horretarako kontratatutako langileek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko edo haren mendeko erakundeetako langileek, lanpostu bakoitzari esleitutako eginkizunen izaeraren arabera.
21. 6. lerrokada erakundearen baliabide ekonomikoak finkatzeaz arduratzen da.
22. 7. lerrokadak dioenez, AUKERAK agentziak, bere eginkizunak betetzeko, beharrezkoak diren administrazio- eta xedapen-egintzak eta eragiketa ekonomiko eta finantzarioak egin ahal izango ditu, hitzarmenak eta kontratuak egin ahal izango ditu, eta bere eskumenerako gaiekin lotutako oinarri arautzaileak eta dirulaguntzak eman ahal izango ditu.
23. 8. lerrokadak xedatzen du Agentziaren ekonomia-, ondare-, kontratazio-, aurrekontu- eta finantza-araubidea, bai eta kontrol ekonomikoaren eta kontabilitate-kontrolaren araubidea ere, zuzenbide pribatuko erakunde publikoei aplikatu beharreko lege-xedapenetan aurreikusitakoak izango direla. Kontrol ekonomiko-finantzarioaren eta kudeaketa-kontrol iraunkorraren modalitatean gauzatuko da Agentziaren kontrol ekonomikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuan eta hura garatzeko araudian ezarritakoaren arabera.
24. 9. lerrokadak adierazten du AUKERAK EAeko administrazio publikoen eta haien mendeko edo haiei lotutako sektore publikoaren berezko bitartekotzat hartzen dela, Agentziaren estatutuetan eta sektore publikoko kontratuen legerian adierazitako moduan.
25. Xedapen gehigarriak AUKERAK agentziari atxikitzen dizkio Estatuko *Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo* zuzenbide publikoko erakundetik



transferitutako langileak, Transferentzien Batzorde Mistoaren akordioan ezarritako baldintzetan.

26. Azken xedapenetatik lehenak bere jardueren hasieran aplikatu beharreko araubidea ezartzen du.
27. Azken xedapenetako bigarrenak xedatzen du legea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean.

BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA

28. Irizpen hau Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikularekin bat eman da; artikulua horrek Batzordearen kontsultafuntzioaren eremutzat jotzen ditu lege-aurreproiektuak, edozein dela ere haien arloa eta xedea, betiere biltzen dituen salbuespenen barruan sartuta ez badaude, eta honako hau ez da horietako bat.

KONTUAN HARTZEKOAK

I ESKUMENAK ETA ARAU-ESPARRUA

29. Euskal Herriko Autonomia Estatutuak (EHAE) eskumen eskusiboa ematen dio Autonomia Erkidegoari espetxeen antolaketaren, araubidearen eta funtzionamenduaren arloan, espetxe-legeriaren arabera (EHAren 10.14 art.), eta espetxe-arloko Estatuko legeria betearazteko eskumena (EHAren 12.1 artikulua). Bestetik, Konstituzioaren 149.1.6 artikulua arabera, Estatuari dagokio espetxe-legeriari buruzko eskumen eskusiboa.
30. Banaketa hori goiz aztertu zuen Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 8ko 104/1988 Epaia (KAE), honako hau adieraziz:

Estatuaren ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak bat datoz espetxe-arloko eskumen-banaketa-ildo nagusietan. Konstituzioaren 149.1.6 artikulua arabera, espetxe-legeria Estatuaren eskumen eskusibokoa da, eta bi ordezkariak ados daude legegintza-terminoaren interpretazio materialarekin, arauen maila formalekin kanpo, non erregelamendu betearazleak ere sartzen diren, legearen garapen direnak, eta hori titulu nahikoa da Estatuak gaia *in toto* arautzeko. Bi ordezkariak ere ados daude Euskal Estatutuan gaiari egiten zaion aipamen bikoitzak (10.14 eta 12.1 artikulua) ez duela zalantzarik eragiten interpretatzeko Eusko Jaurlaritzari dagozkion espetxe-administrazioen antolaketari, araubide- eta



funtzionamendu-ahalmenak, eta, oro har, espetxe-legeria betearzteari dagozkion guztiak.

Eskumenen banaketa interpretatzeko, Espetxeei buruzko irailaren 26ko 1/1979 Lege Organiko Orokorraren 79. artikulua salbuespen bat ezarri du Justizia Ministerioko Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiaren eskumenari dagokionez, «bakoitzaren estatuetan espetxe-legeria betearaztea eta, ondorioz, espetxe-jarduera kudeatzea beren gain hartu duten autonomia-erkidegoetan». Manu horrek, berez, ez ditu eskumen autonomikoak zehazten Konstituzioaren eta Estatutuen esparruan, baizik eta erreserba bat egiten du kasuan kasuko estatutuek ezar ditzaketen eskumen betearazleen atribuzioari dagokionez, baina, nolana ere, argi eta garbi adierazten du espetxe-legeria betearazteko eta, horren ondorioz, autonomia-erkidegoei legokiekeen espetxe-jarduera kudeatzeko eskumen-eremua –espetxeen zuzendaritza, antolaketa eta ikuskaritza barne–, eta hori, EAEko Estatutuaren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio.

Berez, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, modu esklusiboan, «espetxe-legeria betearaztea eta, ondorioz, espetxe-jarduera kudeatzea», eta legegintza-eskumena, betearazpen-erregelamendua barne, Estatuari dagokio. Alderdi horri dagokionez, ados daude gatazkan dauden alderdiak.

31. Estatuak espetxe-arloan duen legegintza-eskumen betearazle horren eduki baketsutat jo daiteke, logikoa denez, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, 2006ko Kataluniako Estatutuaren (Kataluniako Autonomia Estatutua erreformatzeko uztailaren 19ko 6/2006 Lege Organikoa) testuaren 168.1 artikulua zehazten duena, hau da, edozein kasutan: a) espetxe-araudia Kataluniako gizarte-errealitatera egokitzeko xedapenak emateko gaitasuna; b) Kataluniako espetxe-jardueraren kudeaketa osoa, bereziki Katalunian dauden edozein motatako espetxeen zuzendaritza, antolaketa, araubidea, funtzionamendua, plangintza eta ikuskapena; c) Katalunian dauden espetxeen plangintza, eraikuntza eta erreforma; d) Kataluniako espetxe-administrazioari atxikitako higiezin eta ekipamenduen eta esleitzen zaizkion baliabide material guztien administrazioa eta ondare-kudeaketa; eta bereziki garrantzitsua dena gai honetan, e) presoan lan ordaindua planifikatzea eta antolatzea, bai eta espetxeko neurri alternatiboak eta gizarteratzeko jarduerak betearaztea ere.
32. Era berean, Espetxe-erregelamendua onartzen duen otsailaren 9ko 190/1996 Errege Dekretuak (aurrerantzean, Espetxe Erregelamendua), Espetxeei buruzko irailaren 26ko 1/1979 Lege Organikoa garatzeko emandakoak, bere 1.1 artikuluan adierazten du askatasunaz gabetzeko zigorrak eta segurtasun-neurriak betearzteari buruzko



erregulazioa, bai eta epailearen esku dauden atxilotuen eta prebentziozko presoen erregimenari buruzko araubidea ere, «Estatuko lurralde osoan zuzenenean aplikatzekoa» dela; baina 1.2 artikuluan adierazten denez, Estatuko espetxe-legeria betearazteko eskumenak dituzten autonomia-erkidegoetan, autoantolaketarako duten ahalaren arabera, «XI. eta XII. tituluetako manuetan xedatutakoa aplikatuko da osagarri gisa, baldin eta espetxeen antolamendu-gaiak edo araubide ekonomiko-administratiboari buruzkoak arautzen badituzte, bai eta izaera bereko alderdiak arautzen dituzten beste titulu batzuetako xedapenak ere».

33. Espetxe-lanari dagokionez, nazioartean, Eskubide Zibil eta Politikoen 1966ko Nazioarteko Itunaren 8. artikulua, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) 29. hitzarmenak eta Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteko Erromako 1950eko Hitzarmenaren 4. artikulua, behartutako edo nahitaezko lana debekatu ondoren, salbuespen batzuk sartzen dituzte askatasunaz gabetzeko zigorra betetzen duen pertsona baten kasurako. Zehazki, LANEren Hitzarmenak agintari publikoen zaintzapean eta kontrolpean egitea eskatzen du, eta norbanako hori partikularren, konpainien edo pertsona juridiko pribatuen esku ez uztea, ez eta haiei lagatzea ere.
34. Bestalde, espetxe-lanari buruz dihardute presoan tratamendurako gutxieneko arauetan 71.etik 76.era artekoek, 1955ean Nazio Batuen Erakundeak onartuak Delituaren Prebentzioaren eta Delitugilearen Tratamenduaren gainean. Era berean, Nazio Batuen Erakundeak 1990eko abenduaren 14ko 45/111 Ebazpenean onartutako presoan tratamendurako Oinarrizko Printzipioen 8.ak adierazten du kondizioak sortuko direla presoek lan-jarduera ordainduak eta erabilgarriak egin ahal izan ditzaten herrialdeko lan-merkatuan sartzen laguntzeko eta beren eta beren familiaren sostengu ekonomikoari ekarpena egiten laguntzeko.
35. Azkenik, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak estatu kideei egindako REC (2006) 2 Gomendioa aipatu behar da, Europako espetxe-arauei buruzkoa, zeinak 2006ko urtarrilaren 11n onartu baitziren –26. zenbakia eskaintzen dio espetxeko lanari–.
36. Barne-ordenamenduan, espetxeetako barneratuen lan-harreman bereziak aurrekaritzat du Konstituzioaren 25.2 artikulua; izan ere, espetxe-zigorrera kondenatuek ordaindutako lana eta Gizarte Segurantzari dagozkion onurak jasotzeko duten eskubidea ezartzen baitu.
37. Eskubide horren edukiari dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren urriaren 19ko 172/1989 Epaiazen arabera, «prestazio-eskubideen ezaugarrietan parte hartuz, Auzitegi honen doktrina errepikatuaen arabera, bi alderdi ditu: barneratu guztiei lanpostu bat emateko beharrezkoa den neurrian prestazio-erakundea sortzeko betebeharra, eta barneratuek ordaindutako lan-jarduera edo lanpostua izateko eskubidea, dagoen espetxe-antolaketaen aukeren barruan».



38. Orain interesatzen zaigunari dagokionez, «badauka, egiazki, Espetxe Administrazioak betebeharrak espezifikoki bere aurrekontu-erabilgarritasunak ahalbidetzen dituzten lanpostuak sortzeko eta emateko, eta badauka, halaber, legegilearentzat, Espainiako Konstituzioaren 53.3 artikulua araberara, agindu bat, presoei enplegu osoa emateko beharri erantzun diezaion, aukera sozioekonomikoen araberara eta alde batera utzi gabe, hain zuzen ere, Konstituzioak xedatuta, zigorrak duen berretzeko eta gizarteratzeko xede hori. Eta, espetxe-zigorra betetzen ari denaren ikuspuntu subjektibotik, progresiboki aplikatzeko eskubidea da, eta haren eraginkortasuna Administrazioak une bakoitzean dituen bitartekoen arabera da, eta ezin da eskatu, haren izaera kontuan hartuta, hura erabat gauzatzea berehala (Konstituzio Auzitegiaren 82/1986 eta 2/1987 epaiak)».
39. Jarraian, aipatu egin behar da Espetxeei buruzko irailaren 26ko 1/1979 Lege Organiko Orokorren (ELOO) II. tituluko II. kapitulua. Haren 26. artikulua adierazten du lana barneratuaren eskubidetzat eta betebehartzat hartuko dela, eta tratamenduaren funtsezko elementua izango dela. Honako hauek izango dira baldintzak: a) ez da atsekabegarria izango, eta ez da neurri zentzatzailerik gisa aplikatuko; b) ez dio kalterik egingo barneratuaren duintasunari; c) prestakuntzako, sortzailea edo lan-ohituen kontserbatzailea izango da, ekoizpenekoa edo terapeutikoa, barneratuak lan askearen kondizio normaletarako prestatzeko; d) antolatu eta planifikatuko da, gaitasun eta kualifikazio profesionala kontuan hartuta, eta, beraz, barneratuaren lan-nahiak, baldin eta establezimenduaren antolaketarekin eta segurtasunarekin bateragarriak badira; e) Administrazioak jarriko du eskura; f) Gizarte Segurantzaren arloko indarreko legediak ematen duen babesa izango du; eta g) Administrazioak ez du lorpen ekonomikoen mende ezarriko.
40. Zehazki, ELOOren 27.2 artikulua ezartzen du ordaindu egingo dela barneratuek zuzenean egiten duten lan produktiboa.
41. Bestalde, Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren (martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) 2.1.c) artikulua izaera bereziko lan-harremantzat jotzen du espetxeetan zigortutakoena –gaur egun, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren manu berbera–.
42. Aurreikuspen horiek Espetxe Erregelamenduaren V. tituluko IV. kapituluan garatu ziren, espetxeetako lan-harreman bereziari buruzkoan. Era berean, Espetxe Erregelamenduaren 305.2 artikulua adierazita utzi zuen ekonomatua, kafetegia edo sukaldea *Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo* erakunde autonomoak kudeatzen ditueneko ekoizpen-tailerraren formularen bidez, barneratuek ematen dituzten zerbitzu osagarriak edo mekanikoak espetxeetako lan-harreman berezitzat hartuko direla.



43. Bestalde, Espetxeetako lantegietan lan-jarduerak egiten dituzten presoan lan-harreman berezia eta gizartearentzako lanak egin behar dituztenen Gizarte Segurantzaren babesa arautzen dituen uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretuak Espetxe Erregelamenduaren 134. artikulutik 152. artikulura –biak barne– indargabetzen ditu.
44. 782/2001 Errege Dekretuaren 1. artikulua lan-harreman berezi horren aplikazio-eremua mugatzen du. Modu positiboan, kasu hauetan: *Trabajo y Prestaciones Penitenciarias* erakunde autonomoaren edo erakunde autonomiko baliokidearen eta espetxeetako ekoizpen-tailerretan lan-jarduera bat garatzen duten barneratuen arteko lan-harremana, bai eta gizartearentzako lan-zigorak betetzen dituztenena ere; modu negatiboan, berriz, erregimen irekiko barneratuena, enpresaburuekin egindako kontratazio-sistema arrunt baten mendekoak, lan-arloko legeria komunak arautuko duena, alde batera utzi gabe kontratu horiek gauzatzean espetxe-agintaritzak egin dezakeen zaintza, espetxeetan garatzen diren okupazio ez-produktiboan modalitateak, hala nola lanbide-prestakuntza okupazionala, ikasketa eta prestakuntza akademikoa, tratamendu baten parte diren modalitate okupazionalak, establezimenduko zerbitzu osagarri komunetan egiten diren prestazio pertsonalak, artisau-lanak, lan intelektualak eta artistikoak, eta, oro har, ekoizpen-izaera ez duten okupazio guztiak.
45. Haien araubide juridikoari dagokionez, aipatutako 782/2001 Errege Dekretuan xedatutakoak arautzen du espetxeetako lan-harreman berezia, eta gainerako arauak lan-legedi komunekoak dira, Langileen Estatutua barne, zeinak soilik aplika baitaitezke errege-dekretutik edo hura garatzen duen arautegitik haietara berariazko igorpena egiten den kasuetan.
46. Barneratuei lana emateko Estatuak diseinatutako egiturari dagokionez, *Trabajo y Prestaciones Sociales* erakunde autonomoari esleitu zitzaion martxoaren 3ko 326/1995 Errege Dekretuaren bidez, eta haren estatutu berria uztailaren 15eko 868/2005 Errege Dekretuaren bidez onartu zen.
47. 2014rako Estatuak Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 22/2013 Legearen laurogeita zazpigarren xedapen gehigarriaren arabera, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 2.1.g) artikuluan aurreikusitako zuzenbide publikoko estatu-erakunde bihurtu zen. Azkenik, otsailaren 27ko 122/2015 Errege Dekretuak *Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo* zuzenbide publikoko erakundearen estatutua onartu zuen.
48. Era berean, aipatzekoa da Katalunian, espetxe-baliabideak eta -zerbitzuak transferituta dituen beste autonomia-erkidegoa baita, Gizarteratzeko Ekimenen Zentroari buruzko maiatzaren 12ko 5/1989 Legeak zentro hori sortu zuela barneratuen



lanerako eskubidea asetzeko, zuzenbide pribatuaren mendeko zuzenbide publikoko erakunde gisa. Izaera horri eusten dio abenduaren 23ko 23/2009 Legeak, Gizarteratzeko Ekimenen Zentroari buruzkoak, baina zuzenbide pribatutik baztertuta geratzen dira legearen 19. artikuluan zehaztutako gaiak. Azkenik, uztailaren 30eko 210/2013 Dekretuak Gizarteratzeko Ekimenen Zentroaren Estatutuak onartzen ditu.

49. Eskumen substantiboari –behin transferentzia eginda honako hauen bidez: Ekainaren 29ko 474/2021 Errege-Dekretua, espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko esparruan Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen dizkion eginkizun eta zerbitzuei buruzkoa; eta uztailaren 6ko 169/2021 Dekretua, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia, espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko egitekoak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko-
autoantolaketarako eskumena gehitzen zaio (EHAren 10.2 artikulua).
50. Konstituzio Auzitegiak behin baino gehiagotan aitortu du administrazio autonomikoaren beraren antolaketa askeari buruzko eskumena «autonomiari atxikitako zerbait» dela (Konstituzio Auzitegiaren 227/1988 Epaia, 24. oinarri juridikoa) eta «haren edukiaren arabera, administrazio autonomikoak osatzen dituzten edo haien mende dauden organoak, administrazio-unitateak edo entitateak sortu, aldatu eta ezabatzeko ahalmena» duela [Konstituzio Auzitegiaren 93/2017 Epaia, 7a) oinarri juridikoa, 50/1999 Epaia, 3. OJ aipatuz].
51. Espetxe-establezimenduen kasuan, eskumen autonomiko bat ere badago haren antolaketa eta araubide ekonomiko eta administratiboari dagokienez (Espetxeen Erregelamenduen XI. eta XII. tituluak).
52. Dena den, barne-antolaketarako eskumen hori, barneratuen lanaren kasuan, Estatuak diseinatutako antolaketa-eredu batek baldintzatzen du, eta espetxe-kudeaketari aplikatu dakioken araubide unitarioaren parte da. Haren arabera, espetxeetako ekoizpen-tailerretan barneratuek garatzen duten besteren konturako produktzio lan-jarduera lan-harreman berezi baten bidez antolatu behar da, Estatuak *Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo* zuzenbide publikoko erakundearekin edo «erakunde autonomiko baliokidearekin».
53. Hau da, ezin da presoen eta haien enplegatzailearen arteko harreman juridikoa espetxearekin berarekin ezarri, baizik eta kudeaketa-autonomia izango duen pertsonifikatutako erakunde publiko baten bidez, zeinak espetxeetako ekoizpen-lana antolatuko duen.
54. Azken batean, bat egiten du, halaber, lan-legeriaren arloan txertatzen den arauaketa batek, Estatuaren eskumen eskusiboa baita EKren 149.1.7 artikulua arabera, eta



autonomia-erkidegoak betearazteko eskumena baino ez du, EHAren 12.1 artikulua arabera.

55. Lan-legeriaren arloko eskumen hori, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 3ko 360/1993 Epaia arabera, «lan-harremana zuzenean arautzen duena da, hau da, martxoaren 10eko 8/1980 Legearen baldintzak jasotzeko, besteren kontura ordaindutako zerbitzuak ematen dituzten langileen eta enpresaburuen artean dagoen harremana, zerbitzu horiek ematen dituztenen alde eta haien zuzendaritzapean, lege horretan (1.3 artikulua) ezarritako eskusio eta salbuespenekin» (Konstituzio Auzitegiaren 35/1982 Epaia).
56. Horregatik, lan-harreman berezi hori ezartzera eraman duten arrazioak kontuan hartuta, aurreproiektuak zuzenbide pribatuko erakunde publiko bat eratzea erabakitzen du, Estatukoaren baliokidetzat jo daitekeena, bai bere izaeran bai araubide juridikoan, eta bat datoz xedea eta funtzioak, baina horrek ez du eragozten barneko antolamendu-egitura desberdina izatea.
57. Autonomia barruko eskumenen ikuspegitik, legearen aurreikuspenak erakunde erkideen eremura mugatzen dira, eta hori bat dator EHAek eta Autonomia-elkarte Osorako Erakundeek eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeek Arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak ezarritako banaketarekin.
58. Toki-administrazioei dagokienez, adierazi behar dugu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 25.2 artikulua ez duela toki-administrazioen eskumen propioztat hartzen espetxe-legeria betearazteari buruzko ezein eskumen. Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen (ETEL) 17. artikuluko zerrendan ere ez dugu hari buruzko aipamenik aurkitzen.
59. Hala ere, ezin dugu aipatu gabe utzi Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua dela –zeinak toki-, foru- eta autonomia- gizarte zerbitzuak barne hartzen baititu–, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen (GZL) 6.1 artikulua arabera, sustatzea, beste sistema eta politika publiko batzuekin lankidetzan eta koordinatuta, herritar guztien gizarte-ongizatea, eta haren funtsezko helburuen artean dagoela «bazterketa-egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea» (c letra).
60. Eta GZLren 6.3 artikulua honako hau aurreikusten du: «Gizarte-ongizatea, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa ez dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko helburuak, baizik eta gizarte-babeseko beste sistema eta politika publiko batzuekin batera gauzatu beharrekoak; hala bada, horiek gauzatzeko orduan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema bereak diren helburu eta eginkizunen esparruan arituko da elkarlanean. Halaber, elkartasuna eta elkarbizitza sustatzea eta gizartearen



parte-hartzea sustatzea beste sistema eta politika publiko batzuekin partekatutako helburutzat joko dira».

61. Horrekin esan nahi dugu sistema hori ez dagoela arauak bilatzen dituen xede eta helburuetatik kanpo; izan ere, haren helburua da presoak gizarteratzea eta laneratzea bultzatzea, eta, behin espetxea utzita, haien bazterketa ez gertatzea.
62. Era berean, adierazi behar da Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak sortzen duela Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema, non sartzen baitira tresnak bazterketa-arriskua prebenitzeko, bazterketa pertsonala, soziala eta lanekoa arintzeko, eta herritarren eskubide sozialak benetan baliatzeko behar adina baliabide pertsonal, sozial edo ekonomikorik ez dutenen gizarteratzea errazteko.
63. Sistemaren printzipioen artean sartzen dira gizarteratzeko politikaren zeharkakotasuna (3.f artikulua) eta euskal administrazio guztien koordinazioa eta inplikazioa (3.i artikulua).
64. Zioen azalpenetik nabarmendu behar da aitortzen dela enplegua oinarrizko tresna dela gure gizartean sartzeko, eta, aldi berean, pobreziatik babesteko mekanismoa eta integrazio sozialerako elementu pribilegiatua dela.
65. Azken batean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari modu zuzenagoan badagokio ere, erakundeak egingo duen lanaren azken helburua kontuan hartuta, zeinak ondorioak baititu gizarte osoan, euskal herritarren gizarte-ongizatean, gizarteratzean eta gizarte-kohesioan lagunduko duenez, ezin da esan foru-aldundiek eta toki-erakundeek gizarte-laguntza eta -zerbitzuen arloan egiten dituzten jardueretatik kanpo geratzen dela.
66. Ekimenaren esparrua osatzen du, Euskal Administrazioak har dezakeen antolaketa-moduetako bat egituratzen denez, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen (aurrerantzean, EONAL) Testu Bateginaren III. tituluari jasotako erregulazioak –testu bategin hori azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen–.
67. Aurreratzen dugu esparru hori errespetatu egiten duela aurreproiektuak, aurrerago manu zehatzen harira esango dugunari kalterik egin gabe.



II AURREPROIEKTUAREN PRESTAKUNTZA ETA IZAPIDETZEA

68. Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko Legea (8/2003 Legea, abenduaren 22koa) (aurrerantzean, XOEPL) irizpenaren xede den testua egiteko prozesua aztertzeko kontraste-parametroa da.
69. Hala ere, azterketa horrek hura baldintzatzen duten hiru alderdi hartu behar ditu kontuan.
70. Lehenik eta behin, arau-produktu horrek berezkoa duen baldintzatzaile orokor bat, lege-aurreproiektua baita, eta, beraz, nahitaez gogorarazi behar da alde handia dagoela legegintza-ekimenaren eta Gobernuaren erregelamendu-ekimenaren artean. Alde hori Batzordearen esku-hartzeak hartzen dituen inguruetan proiektatzen da, 116/2021 Irizpenean azaldu berri diren moduan.
71. Laburbilduz, Espainiako Konstituzioan, Euskal Herriko Autonomia Estatutuan edo lege organikoetan aparteko izapide espezifikoren bat aurreikusten den kasuetan salbu (35/1984 KAE, martxoaren 13koa edo 176/2011 KAE, azaroaren 8koa), lege-aurreproiektuak egiteko exekutiboan jarraitu den bidearen balioztapena ez da erregelamenduen kasuan dagokionaren balioztapen bera. Azken horietan, adibidez: interes publikoen entzunaldirik edo parte-hartzerik ezak, nahitaezko txostenik ezak, etorkizuneko arauaren baliozkotasuna baldintza dezake. Lege-aurreproiektuen kasuan, aldiz, ez da hori gertatzen. Izan ere, aipatutako kasuetan soilik eragin diezaioke baliozkotasunari, baita txosten-gabeziak Parlamentuaren borondatea mugatzen duen kasuetan ere (guztien eredu, 108/1986 KAE, uztailearen 28koa eta 84/2015 KAE, apirilaren 30ekoa).
72. Alde nabarmen horren ondorioz, lege-aurreproiektuak egiteko prozedurak aztertzean, Batzordearen lana, funtsean, proiektatutako araubidea egokia izan dadin laguntzea da, hau da, arrazionala izan dadin laguntzea –proposatutako helburuak lortzeko erabilgarria izatea–, eta arauketa zuzena izan dadin laguntzea, arautu nahi den errealitatearekin bat datorrena.
73. Lege-aurreproiektuei dagokienez, kontsulta-funtzioaren aurreko espezifikotasunak ez du saihestu Batzordeak oharrak egitea aurreproiektua egiteko prozedurari eta bere memoriari buruz, kontsulta egin duen organoarekin batera elkarlanean jarduteko asmo soilarekin, eta aurreproiektua hobetze aldera. Baina beti ahaztu gabe, kontsulta egin duen organoaren egite-prozeduraren balorazioa ez dela sartzen testuaren balioztatze juridikoaren arloan eta ez duela uzten sortzen amaierako produktu arauemailearen konstituzionaltasunarekiko eragozpenik.



74. Bigarrenik, baldintzatzaile material bat, aztertzen ari garen aurreproiektuaren antolaketa-edukiaren ezaugarria baita, eta horrek ere eragin zuzena du hura izapidetzean.
75. Izaera horri esker, eskakizunak modulatu ahal izango dira aurreproiektua egiteko fasean.
76. Eta, azkenik, hirugarren faktore zirkunstantzial bat, prozedura izapidetzeko premia behar bezala justifikatu ondoren, XOEPLren 14. artikulua aukera ematen du, arrazoituta, arau erregulatzaileetan aurreikusitako prozedura-izapideren bat alde batera uzteko, salbu eta lege-maila edo -indarra duten arauak nahitaezkozkat jotzen dituztenean.
77. Ohartarazpen horiek formulatu ondoren, irizpena egingo zaion testua lortzeko jarraitutako prozedura aztertuko dugu.
78. Egiteko prozedura Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2021eko ekainaren 1eko Aginduaren bidez hasten da.
79. Prozedura hasteko aginduak honako hauek adierazi behar ditu labur-labur: arauaren xedea eta helburua, prozeduraren presaren arrazoiak, edukia, bideragarritasun juridiko eta materiala, ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak, onartu aurretik egin behar diren izapideak eta idazketa-sistema. Horrela, XOEPLren 5. artikuluan xedatutakoa betetzen da. Agindu hori Legesarea lankidetzagunean argitaratzen da.
80. Aurreproiektuaren justifikazio-memoriak, lehenik eta behin, xedea aztertzen du. Jarraian, honako hauek jorratzen ditu: legearen beharra eta egokitasuna, Estatuko *Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo* erakundearen funtzioen eskualdatzea, Euskadiko espetxeetan eskualdatu aurreko egoera eta eginkizunak bere gain hartzea, lan-jardueraren garrantzia eta konplexutasuna eta enplegurako orientazioa espetxe-tratamenduaren parte gisa, bai eta presoan lan-jarduera kudeatzeko formula posibleak ere. Ondorengo epigrafeetan, erregulazioaren eskumen-oinarria, arau-maila eta edukia aztertzen dira, eta, amaitzeko, erakundea sortzeko eta martxan jartzeko urgentziazko premia.
81. Dokumentu horretan, abiapuntuko egoera islatzen duten datu hauek bildu ditugu.
82. Estatuko erakundeak honako jardura hauek kudeatzeko agindua dauka, kudeaketa-mandatu bidez:

Barneratuen elikadura (indarrean 2021-12-31ra arte)



Espetxeetako elikagaiak banatzeko tailerren kudeaketa (indarrean 2021-09-30era arte)

Espetxeetako mantentze-tailerren kudeaketa (indarrean 2021-08-31ra arte)

Espetxeetako jarduera osagarrien tailerren kudeaketa (indarrean 2021-08-31ra arte)

Espetxeetan barneratuentzako lote higienikoak hornitzeko tailerren kudeaketa (indarrean 2021-08-31ra arte).

83. Memorian zehazten denaren arabera:

Akordio 2. akordio osagarriaren arabera, enkargu horiek betetzen jarraituko du Estatuko erakunde horrek, adostu ziren baldintzen arabera. Ondoren, eskualdaketaren eraginkortasun-datatik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoak hartuko ditu bere gain. Ondorioz, dagokion dirua ordainduko dio TPFEri.

Elikagaien enkargua salbu, gainerakoek abenduaren 31 baino lehen amaitzen dute indarraldia. Beraz, horietan, akordioaren arabera, eskualdaketaren eraginkortasun-datan indarrean dauden kudeaketa-enkargu berriak (onartzeko izapidean daudenak) betetzeari eutsiko zaio, harik eta horien indarraldia amaitu arte.

Hala ere, kontuan hartu behar da eskualdaketaren 5. akordio osagarriaren ezarritakoaren arabera, EAeko espetxeetako ekonomatuaren eta kafetegiaeren zerbitzuak kudeatzen jarraituko duela TPFEk, orain arte bezala, 2021eko abenduaren 31ra arte. Ondoren, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoak kudeatuko ditu.

84. Gainera,

Estatuko erakundeak indarreko lankidetzak-akordioak ditu sinatuta zenbait enpresarekin, beste tailer produktibo batzuk garatzeko: Alecop; Ind. TECNICA de la Espuma SL; Ofita; PIMESA; Almacenes Industriales Lasarte; Izar Cutting Tools SA eta abar.

85. AUKERAK erakundeak subrogatu egin behar du, enplegu-emaile berri gisa, espetxeetako barne-langileen lan-harremanetan, eta horri dagokionez, honako hau adierazten da:



Euskal Autonomia Erkidegoan, gaur egun, 354 langile daude espetxeetan barneratuta, nominaren itxierako datuen arabera (2020ko abenduaren 31n). Horietatik 240 dira tailer produktibo propioetako langileak, eta 114, berriz, kanpoko enpresekin lankidetzan kudeatutako tailerretakoak.

Horrek, guztira, 93.858,74 €-ko sortzapenak egiten ditu, bai eta 28.9009,28 € ere, Gizarte Segurantzarako enpresa-kotizazioen zioz.

Zenbateko horiek aldatu egiten dira hilean-hilean, lan egindako orduen eta etekinaren arabera.

86. Jarraian, aurreproiektua hasierako onespren-aginduaren xede izan zen, XOEPLren aurreikuspenen arabera, zehazki 7. artikulua arabera.
87. Txosten juridikoak, sarrera bat formulatu ondoren, haren eskumen-oinarria aipatzen du, haren edukia –funtsean deskribatzailea– eta alderdi formalak (legegintza-teknika eta izapidetzea) aztertzen ditu, ordenamendu juridikoarekin bat datorrela ondorioztatzeko.
88. Enpresetan duen eraginari buruzko apartatu bat dauka, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarritakoa betetzen duena.
89. Baztertu egin da entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egitea, eta hori justifikatuta egongo litzateke XOEPLren 8,5 artikulua salbuespenaren oinarrituta, Xedapen orokorrak egiteko prozedura aplikatzeari buruzko jarraibideekin bat etorri (Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 12an onartu zituen jarraibide horiek). Salbuespen hori aurretiazko kontsultaren izapidera ere zabalduko litzateke, hori ere ez baita egin.
90. Era berean, aurreproiektuaren antolaketa-izaerak aukera ematen du generoaren araberako inpaktuari buruzko txostena egiteko eskakizuna saihesteko –Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan arautua–, Gobernuak onartutako eta Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren bidez argitaratutako jarraibideen arabera. Emakundek, bere aldetik, generoaren araberako inpaktuari buruzko txostenetik salbuetsita dagoela egiaztatu du.
91. Lan Harremanen Zuzendaritzak eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak beren txostena egin dute, aurreproiektuak funtzio publikoaren arloan eragiten dituen gaiei buruz.



92. Aitzitik, ez dute halakorik egin ez Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak, hizkuntza-araudia betetzeari eta horrek euskararen erabileraren normalizazioan dituen ondorioei dagokienez, ez Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaleko Zuzendaritzak, antolaketaren arloan.
93. Bi kasu horietan, deklaraturako urgentziak aukera ematen dio instrukzio-organoari haren igorpena saihesteko, bi txostenak erregelamenduzko arauetan aurreikusita daudelako. Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren eskumena Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 12.1 artikuluan dago aitortua. Bitartean, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretutik eratorzen da Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzarena.
94. Memoria ekonomikoak, lehenik eta behin, aurreproiektuaren oinarria jorratzen du, eta Transferentzien Batzorde Mistoaren Akordioaren B) (Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen dituen funtzioak eta zerbitzuak) eta G) (eskualdatutako funtzioak eta zerbitzuak finantzatzeko araubidea) apartatuen edukia jasotzen du, baita 4. eta 5. Akordio Osagarriak ere.
95. Bigarrenik, AUKERAK erakundea sortzeak eragiten dituen ustiapen-gastuak eta -sarrerak kuantifikatzen ditu. Hirugarrenik, agentzia berriaren funtzionamenduak eskatuko dituen inbertsioak eta kapital-baliabideak kuantifikatzen ditu.
96. Memoria ekonomikoaren laugarren epigrafea finantzaketari buruzkoa da, eta bosgarrenak, berriz, ustiapenari, kapitalari eta emandako zerbitzuen errendimenduari (2021eko eta 2022ko ekitaldietarako) buruzko laburpena biltzen du.
97. Datu esanguratsu gisa, honako hauek sartzen dira:
 - AUKERAKek 2022an egin beharreko jarduera 6.313.280,60 eurotan zenbatetsi zen, eta ustiapen-gastuak 9.380.711,45 eurotan. Hots, jarduera horren % 32 diruz lagundu beharko da gastu arruntetarako dirulaguntzen bidez (batez ere, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarenak, baita, neurri batean, Europar Batasunarenak ere, Aukerak bitarteko erakunde bihurtzen bada).
 - AUKERAKera atxiki beharreko langileen gastuak, presoen ordainsariak eta kotizazioak barne, ustiapen-gastu guztien % 40 izango lirateke.



- Aurkeztutako ustiapen-kontuek agerian uzten dute ustiapenaren emaitzak nabarmen hobetzen direla ekoizpen-instalazioak hobetzen diren heinean; izan ere, instalazio modernoek (Zaballa) emaitza oso positiboak ematen dituzte, instalazio zaharretan (Martutene) antolatutako tailerrek uzten duten tarte txikiaren aurrean. Datu horrek agerian uzten du etorkizunean espetxeetako ekoizpen-instalazioei dagokienez adostu daitezkeen inbertsioek emaitza positiboak ekar ditzaketela, proiektatutako agentzia berriaren egiturazko gastuei diru-sarrera propioekin aurre egiten laguntzeko.

Azkenik, adierazi behar da etorkizunean AUKERAK garatuko dituen ekoizpen-ekintzen eta prestakuntza-ekintzen errentagarritasuna neurtu beharko dela, batez ere, etorkizun hurbilean xede horretarako zehaztuko diren prestakuntza- eta gizarteratze-helburuak lortzen dituzten pertsonei dagokienez.

98. Seigarrenik, Euskal Autonomia Erkidegoko ogasun orokorraren berezko gaietan eragina duten alderdiak identifikatzen dira; zazpigarrenik, proposatutako xedapena txertatzen den aurrekontu-programa deskribatzen da; zortzigarrenik, hura aplikatzeak euskal administrazioari eta haren aurrekontuei, beste euskal administrazio publiko batzuei eta herritarrei edo enpresa pribatuari ekar diezaikekeen kostua baloratzen da.

99. Azken puntu horri dagokionez, honako hau esaten da berariaz:

Askatasunaz gabetutako pertsonen kasuan, AUKERAK erakundea sortzeak eragin positiboa izango du; izan ere, haren helburua da prestakuntza- eta lan-ibilbideak eskaintzea, kondena bete ondoren berriro gizarteratu eta laneratu ahal izateko.

Zigortuak erkidegoan berriro integratzeak eragin positiboa du ekonomian, delitu-berrerortzea eta hari lotutako kostu sozialak eta ekonomikoak murrizten laguntzen baitu.

Enpresa txiki edo ertainean duen eraginari dagokionez, AUKERAK erakundearen sorrerak ez du eragin esanguratsurik.

Espetxe-tailerren ondoriozko ekoizpen-lana ez da lehia-faktorea merkatuan. Indarrean dagoen araudiak ez du ahalbidetzen espetxe-lana interes ekonomikoak lortzera bideratzea, eta ekoizpen-tailerren errealitatea zentratzen da zentroen funtzionamenduari laguntzeko zereginetan edo jantzigintza errazeko lan eta produktuetan, trebakuntza handirik behar ez dutenak eta merkatuan abantailaz



lehiatzen ez direnak. Beraz, kanpoko enpresen lankidetzak ez da lehia-abantaila haientzat, eta ez dituzte ordeztzen edo kentzen kanpoko lanpostuak lan-baldintza txarragoak baliatuta.

100. Aurrekontu Zuzendaritzak aurreproiektuaren aldeko txostena egin du, kontuan hartuta zer baliabide ekonomiko izango dituen AUKERAK erakundeak, egingo den legean ageri denez, bai eta ekimenaren buru den sailak aurkeztutako memoria ekonomikoa ikusita ere. Hala ere, lehenago jakinarazi du AUKERAK erakundea 2021ean zehar sortzen bada, Jaurlearitzak onartu beharko dituela urte horretako aurrekontuak, eta 2022ko ekitaldiari dagozkion kopuruak bat etorri beharko direla Eusko Legebiltzarrak Euskal Autonomia Erkidegoko 2022rako aurrekontu orokorrak egiteko eta ondoren onartzeko prestatutako aurrekontu-egoerekin.
101. Kontrol Ekonomikoko Bulegoak bere txostena egin du dagokion ekonomia- eta araudi-kontrola baliatuta, zeina urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginean aurreikusita baitago eta hark derrigortzen baitu.
102. Kontrol Ekonomikoko Bulegoak prozedura eta jarraitutako izapidetzea aztertzen ditu, ondoren testua eta edukia aztertzeko. Horretarako, eskumenera euskarria kontrastatu eta iradokizunen bat egiten da.
103. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren egituraren antolamenduan duen eraginari dagokionez, AUKERAK erakundea sortzeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren forma hautatzea egokia dela eta administrazio instituzionaleko erakundeak erregulatzen dituen araudiarekin bat datorrela irizten da. Hala eta guztiz ere, oraindik sektore publikoaren lege-proiektua denaren 44. artikuluan jasotako erregulazioarekin koherentea izanda, komenigarritzat jotzen da erakundea sortu aurretik hasierako jarduketaren plana eta ekonomia- eta finantza-azterketa egitea. Horretarako, ogasuneko eta aurrekontuetako sailburu eskudunak txostena egin beharko luke nahitaez, eta Gobernu Kontseiluaren akordio bidez onartu beharko litzateke. Aurreproiektuaren edukia dagokionez, sektore publikoaren lege-proiektuaren 45. artikuluan oinarrituta, arau horretan zerrendatutako elementu batzuen falta sumatzen da, besteak beste, gobernu-organoei, haien osakerari, kideak izendatzeko prozedurari eta dauden organoetako bakoitzari dagozkion eginkizunen banaketari buruzkoak. Funtzioei buruzko gogoetak ere egiten dira, zehazki, honako hauei buruzkoak: dirulaguntzak ematea, araubide juridikoa –non xehetasunez azaltzen baita zer kontrol ekonomia- eta kontabilitate-kontroli lotuta geratuko den–, antolaketa –non azpimarratzen baita Administrazio Kontseiluaren osaketa eta kideen izendapen-prozedura eta erakundeari esleitutako funtzioen banaketa Administrazio Kontseiluaren eta haren Zuzendaritzaren artean–, langileak –erakundeari atxikitako



langileak aipatuta-, baliabide ekonomikoak, aurrekontuak, egitura, aldaketak eta transferentziak, bai arruntak bai kapitalekoak, ondarea eta erakundearen azkentzea eta likidazioa. Eta beste gogoeta batzuekin amaitzen da; horietan ere, sektore publikoaren lege-proiektuarekin koherente izanik, erakundearen estatutu berriak Administrazio Kontseiluaren txostenaren mende jartzea proposatzen da, egiten duen lehenengo bilkuran.

104. Ekonomia- eta aurrekontu-eraginari dagokionez, positiboki baloratzen da memoria ekonomikoa; izan ere, oro har, indarreko arauak dokumentu horri esleitzen dizkioten mandatuak betetzen ditu. Administrazio autonomikoarentzako gastuari dagokionez, ordea, faltan sumatzen da AUKERAK erakundearen egiturari dagozkion giza baliabideen aurreikuspena, ordainsarien eta kostuen deskribapenarekin. Diru-sarrerari dagokionez, ez dirudi zergen edo zehapenen ondoriozko diru-sarrerarik dagoenik. Ustiapen- eta kapital-aurrekontuari dagokionez, lau urterako aurreikuspena egin behar zela irizten da. Azkenik, beste administrazio publiko batzuek, partikularrek eta ekonomia orokorrak jasango duten eragin ekonomikoa aipatzen da.
105. Egiteko prozedurari buruzko memoria labur bat idatzi da, XOEPLren 10.2 artikuluko agindua betetzeko. Bertan, egindako izapideak eta haien emaitza azaltzen dira, jasotako ohar eta alegazioen zerrenda batekin. Dokumentu horretan azaltzen dira, arrazoituta, zergatik onartu diren batzuk eta baztertu beste batzuk.
106. Azkenik, memoria ekonomiko osagarri bat dago, agentzia martxan jartzeko behar diren giza baliabideei buruzko aurreikuspenik eza zuzentzeko egina.
107. Aurrekari horiek aukera ematen dute aurreproiektua egiteko jarraitutako prozedura modu positiboan baloratzeko, baina beharrezkoa da honako hau eranstea.
108. Lehenik eta behin, ez dago jasota aurreproiektua hasierako fasean Legebiltzarrera bidali zenik, ez eta Batzorde honetara bidalitako dokumentazioa Ganberara bidali zenik ere, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzeko ekainaren 2ko 8/2016 Legeak eskatzen duenez.
109. Hala ere, lege-aurreproiektua denez, argi dago izapidearen garrantzia erlatibizatu egin behar dela; izan ere, behin lege-proiektu bihurtuta, Jaurlaritzak bidali behar du, gutxienez, memoria orokorrenekin, aurrekontuari karga dakarkioten proiektuen kontrol ekonomikoari buruzko txostenarekin, Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenarekin eta legeriaren arabera nahitaezkoak diren txostenekin batera, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 133.2 artikulua eskatzen duen moduan.
110. Bigarrenik, memoria ekonomikoan azaltzen da aurreproiektuak ez diela eragiten beste erakunde-maila batzuei, hala nola aldundiei eta udalei. Horregatik, ondoriozta daiteke



ezin dela beste administrazio batzuen parte-hartzea eskatu, zeintzuen araubidea XOEPLren 9. artikulua arautzen baitu; izan ere, ez du eragin zuzenik haien eskumenetan edo garatzen duten jarduketan.

111. Hala ere, badirudi balorazio horrek ahaztu egiten duela hau: aurreproiektuaren artikulua bakarraren 9. lerrokadaren arabera, AUKERAK agentzia euskal administrazio publikoen bitarteko propietat hartzen da «euskal administrazio publikoen eta haien mendeko edo haiei lotutako sektore publikoaren artean, agentziaren estatutuetan eta sektore publikoko kontratuen legerian adierazten den moduan».
112. Aurreproiektuaren edukia aztertzen dugunerako utzi ditugu kalifikazio horretatik eratorzen diren ondorioak, baina aurreratu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren berezko bitartekoa soilik ez bada egiazki, ez zela alde batera utzi behar autonomia-erkidegoko udalen eta aldundien esku-hartzea, kasuan kasuko bide instituzionalen bidez.

III AURREPROIEKTUAREN EDUKIAREN AZTERKETA

113. Botere publikoek beren burua antolatzeko duten ahala antolamendu politiko ororen funtsezko printzipioa da; izan ere, haietako bakoitzari dagokio antolaketa- eta pertsonifikazio-modu zehatzak zehaztu eta hautatzea, horien bidez interes orokorrak ahalik eta hobekien eta modurik eraginkorrenean lortzen saiatzeko, interes horiek betetzeko ardura baitu.
114. Antolamendu-aukera horiek, sortzen direnean, arauak horretarako aurreikusten dituzten prozeduretara egokitu behar dute, eta, antolatzeko modu zehatzari eta, hala badagokio, pertsonifikazioari dagokionez, ordenamenduak aurreikusten dituen artean aukeratu behar da, dagokion organoa edo erakundea sortzearekin lortu nahi den helburua kontuan hartuta.
115. Kasu honetan, aukera hori, behar bezala azalduta geratu denez, zenbait konstituzio- eta lege-mandaturen mende dago, eta, horren ondorioz, erakunde hori sortzea da espetxeetan zigortuei lana emateko betebeharrari erantzungo dion antolaketa-irtenbidea.
116. Erakundeari berari dagokionez, zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa eratzten denetik aurrera, espetxe-legeria betearazteko eskumena duen sailari atxikita (artikulu bakarraren lehen lerrokada), izaera hori hartzen du, bere sorrera ezartzen duen legean berariaz halakotzat jotzen delako, EONALren 16. artikulua eskatzen duen moduan.
117. EONALren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde bilakatzen du horrek, izaera publikoak; haren helburua erkidego horren aginpidepeko jarduerak dira,



deszentralizazio-erregimenean burutuko dituenak betiere, eta zuzenbide pribatuaz araututa daude gehienbat (EONALren 15. artikulua).

118. Horrelako erakundeen araubidea honako hau da:

- a) Autonomia Erkidegoko gainerakoek dutenaz bestelako nortasun juridiko propioa dute (EONALren 7.4 *in fine* artikulua).
- b) Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko arloei dagokienez, esanbidez aplikagarriak zaizkien xedapenei jarraitzen diete, eta kontrajartzen ez zaizkien alderdietan, berriz, zuzenbide pribatuari (EONALren 18. artikulua).
- c) Sortzeari, azkentzeari eta berregituratzeari dagokienez, EONALren 12. eta 13. artikulua aplikatu daitezke (EONALren 17. artikulua).
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren berezko gaiei buruzko xedapenak daude, zuzenbide pribatuko erakunde publikoei berariaz aplikatzekoak, honako arau hauetan: EONAL -19. eta 23. artikulua, sozietate publikoen titulartasuna aurreikusten dutenak; 29.2 artikulua, aurrekontuaren aurreproiektua egiteari buruzkoa, eta 48.5 artikulua, dirulaguntzen jarduerari buruzkoa-; 8/1996 Legea, azaroaren 8koa, Euskal Autonomia Elkartearen Finantzena -35. artikulua, zorpetzeari buruzkoa, eta 51. artikulua, bermeak emateari buruzkoa-; 1/2011 Legegintzako Dekretuak, maiatzaren 24koak, onartutako Euskadiko aurrekontu- araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu batekina eta Dekretu horrek araututako Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea -51. artikulua eta lotutakoak-; 2/2017 Legegintzako Dekretuak, urriaren 19koak, onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu batekina -1.4 eta 6.3 artikulua, besteak beste-; eta 2/2007 Legegintzako Dekretuak, azaroaren 6koak, onartzen duen Euskadiko Ondareari buruzko Legea -1.1 artikulua eta bat datozenak-. Aitzitik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko maiatzaren 29ko 13/1998 Legeak (1.2 artikulua) bere eremutik kanpo uzten ditu horrelako erakundeek zerbitzuak emateko eratorritako diru-sarrerak.

119. Laburbilduz, AUKERAK erakundea zuzenbide pribatuaren arabera arautzen da, bere sortze-legean berariaz araututako alderdietan izan ezik, horietan zuzenbide publikoaren mende baitago, bai eta Euskadiko ogasun orokorraren, finantzen, aurrekontu-araubidearen, kontrol ekonomikoaren eta ondarearen berezko gaietan aplikatu beharreko arauen mende ere.



120. Gainera, egokia dirudi gogoraraztea Euskararen erabilera arautzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea ere proiektatzen dela zeharkako arau gisa funtzionatzeari dagokionez. Zehazki, Gobernu Kontseiluaren 2021eko apirilaren 13ko Erabakiaren bidez onartu berri dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta hari atxikitako sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren apirilaren 19ko 22/2021 Ebazpena, EHAA, 865. zk., 2021eko maiatzaren 5eko).
121. Xedapen autonomiko horiek alde batera utzita, aplikatzekoak dira, halaber, erakunde publiko horien jardura arautzen duten Estatuko arauak, administrazio-ahalak gauzatzen dituztenean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (APAPL) 2.2.b) artikulua eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen (SPAJL) 2.2.b) artikulua.
122. Bai eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean -3.1.g) artikulua- xedatutakoak ere, zeinaren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten baita Espainiako ordenamendu juridikora.
123. Gai horietan, Estatuko araudia Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikulua babesean eman da, eta administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen oinarrizko araudia da, autonomia-erkidegoen berezko antolaketa eratorritako berezitasunei kalterik egin gabe, bai eta administrazio-kontratu eta -emakidei buruzko oinarrizko legeria ere.
124. Aurreproiektua bat dator araubide juridiko horrekin. Hala ere, aurreproiektuak zenbait auzi sortzen ditu, eta jarraian aztertuko ditugu.
125. Lehenik eta behin, deigarria da artikulua bakarraren laugarren lerrokadan jasotako **antolamendu-erregulazioaren** dentsitate txikia, eduki hau baitu:
- AUKERAKen gobernu-organoak honako hauek izango dira: Lehendakaritza, Administrazio Kontseilua, Zuzendaritza Nagusia eta bere estatutuetan ezartzen diren gainerakoak. Estatutu horietan arautuko dira organo horien eginkizunak, osaera eta kideen izendapena, bai eta erakundearen egoitza, egitura organikoa eta funtzionamendu-araubidea ere.
126. Gobernu-organoen zerrenda bat dago, baina ezin dugu esan haien funtzio eta eskumenen gutxieneko mugatze bat egiten dela. SPAJLren 5.3.b) artikulua arabera, mugapen hori funtsezkoa da edozein organo sortzeko.



127. Ezerk ez du eragozten zuzenbide pribatuko erakunde publikoen organoen sorrera, aldaketa edo azkentzea erakundea sortzen duen legeak eta hura garatzen duen erregelamenduak partekatzea, baina euskal ordenamenduan, legearen helburu nagusia erakundea sortzea izan denean -9/1982 Legea, azaroaren 24koa, Energiaren Euskal Erakundea sortzen duena; 5/1982 Legea, maiatzaren 20koa, Euskal Irrati Telebista Herri-erakundea sortzekoa; 6/2004 Legea, maiatzaren 21ekoa, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari buruzkoa; 3/2007 Legea, apirilaren 20koa, Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute Sortzeko eta Arautzekoa; 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena; 5/2008 Legea, ekainaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu era arautzen duena; 13/2012 Legea, ekainaren 28koa, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzkoa-, legeak erakundearen barne-egituraren funtsezko mugaketa egin du, oso-osorik Jaurlaritzaren esku geratu gabe, eta formulazio zehatzagoa izan du legeak helburu zabalagoa zuenean -Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren kasua, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen bidez sortua, eta, batez ere, Finantzen Euskal Institutuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko 2008. urteko Aurrekontu Orokorra Onartzen dituen abenduaren 28ko 15/2007 Legearen bidez sortua-.
128. Funtzio jakin bat edo funtzio-multzo jakin bat egiteko erakundea ezarri eta gobernu-organo batzuk dituen antolaketa-eredu bat gauzatu ondoren, legeak berak banatu behar ditu horiek gauzatzeko ahalak, besterik ezin baita izan ahalmen horiek konfiguratzeko arrazoia.
129. Dena den, zehaztapen organiko eta eskumen-atribuzio korrelatibo horrek ez du esan nahi eskumen-translazioak egin ezin direnik, eta hori da Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauekiko ekainaren 22ko 12/1983 Legearen 17. artikulua zentzua, lege horren 13. artikulua aplikagarritasunera igortzen baitu, zeinak honako hau xedatzen duen:
- Jaurlaritzak, erregelamendu bidez, erakunde autonomiadunak beste era batera egituratu ahal izango ditu, eta berregituraketa horien barruan egon daiteke erakunde horiek eduki behar dituzten langile eta materialen inguruko aginpideak ematea, aldatzea edo kentzea eta baita funtzionamendu-erregimenean aldaketak egitea ere. Berregituraketa horiek, hala ere, ezin dituzte, inola ere, erakunde horien izate-arrazoiak edo kalifikazioa aldatu.
130. Hau da, erregelamendua baimenduta dago berregituraketa horiek zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egiteko, eta berregituraketa horiek eragina izan dezakete hura osatzen duten organoen eskumen-atribuzioetan, baina, hain zuzen ere, malgutasun horrek, egoeraren araberako antolamendu-alderdiak erregelamendu-



erregulaziora irekitzeak, berekin dakar legean aldez aurretik finkatzea haren oinarrizko antolamendua eta hark sortutako organoen funtsezko funtzioak.

131. Egja da Estatuan SPAJLren 91.2 artikulua ez duela ezartzen Estatuko organismo publiko bat sortzeko legearen eduki gisa haren antolaketa-egitura zehaztea, hura estatutuek ezarriko baitute. Hala ere, SPAJLren 90.1 artikuluan jada aurreratzen da gobernu-organismoetan eta organo betearazleetan egituratzen direla, eta lehenengoan artean presidentea eta Kontseilu Errektorea sartzen dira, eta, bestalde, estatutuetan beste gobernu-organismo batzuk aurreikus daitezke.
132. Baina, adierazi dugun bezala, Autonomia Erkidegoan, zuzenbide pribatuko erakunde publikoa sortzeko legea izan da antolaketa-egitura hori ezartzeaz arduratu dena, administrazio-organismo bakoitzari dagozkion osaera eta funtzioak adierazita. Lege-tribuzio horrek, administrazio-ahalak baliatzean, logikoki esan nahi du haiek esleitu zaizkien organoek bakarrik baliatu ahal izango dituztela.
133. Planteamendu horrekin bat dator sektore publikoaren lege-proiektua; izan ere, bertan jasotzen dira, 45.2.d) artikulua arabera, dagozkion erakundea eratzeko lege-proiektuaren gutxienezko eduki gisa, haren gobernu-organismoak zehaztea eta, halakorik balego, kontsulta-eginkizunak esleitu dituztenak, eta honako hauek adierazita: pertsona bakarreko edo kide anitzeko izaera, osaera, kideak izendatzeko prozedura eta dauden organismoetako bakoitzari dagozkion eginkizunen banaketa.
134. Bestalde, esan daitekeen bezala, aurreproiektua sakon aztertu da zuzenbide pribatuko erakunde publiko bat sortzeko dituen ondorioei buruz, eta, **kontratazioaren gaiari** dagokionez, osatu egin daiteke azterketa hori, eta, hori dela eta, honako ohar hauek egingo ditugu, zeinak ez baitira aurreproiektuaren planteamendurako eragozpenak, baina beren jardura arautu behar duten baldintzatzaileen ideia zehatzagoa ematen dute.
135. Artikulu bakarraren zazpigarren lerroakadak xedatzen du AUKERAK erakundeak, bere helburuak betetzeko, kontratuak egin ahal izango dituela, eta zortzigarren lerroakadak adierazten du kontratazio-araubidea zuzenbide pribatuko erakunde publikoei aplikatu dakizkiekeen legeko xedapenetan aurreikusitakoa izango dela.
136. Bederatzigarren lerroakadak garrantzi handiagoa du; haren arabera:

AUKERAK **EAEko Administrazio Publikoen** eta haien mendeko edo haien lotutako sektore publikoaren **berezko bitartekotzat** hartzen da, Agentziaren estatutuetan eta sektore publikoko kontratuen legerian adierazitako moduan.



137. Ez da desegokia aipatzea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) manuen zati handi bat Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 18ko 68/2021 Epaia ebatzitako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoren xede izan dela.
138. Zehazki, SPKLren 32. artikuluen 1., 2., 4., 6. eta 7. apartatuak, botere esleitzzaileek baliabide propio pertsonifikatuei egindako enkarguei buruzkoak, konstituzionalizat jo dira [6 C) c) OJ], arau horiek materialki oinarritzekoak direlako, eta haien xedeak – funtsean, kontratazio publikoaren esparruan lehia askea bermatzea, lehia askea faltsutzen duen legea ez aplikatzea saihestuta– erakusten baitu, goi-azitegiaren arabera, ez dutela gehiegizko erregulazioa egiten.
139. Hori esanda, esan daiteke AUKERAK botere esleitzzaileak hartu behar dela kontratazio publikoari buruzko legerian aurreikusitako ondoretarako, eta egoera horretara behartuta dago SPKLren 3.3.d) artikuluen ondorioz.
140. Aipatu SPKLren 3.3.d) artikuluen arabera, botere esleitzzaileak dira «Berezko nortasun juridikoa duten gainerako entitate guztiak, aurreko letretan adierazitakoez bestelakoak, berariaz industria- edo merkataritza-izaerarik ez duten interes orokorreko premiei erantzuteko sortuak, baldin eta 3. apartatuan ezarritako irizpideen arabera botere adjudikatzailea den subjektu batek edo zenbaiten haien jarduna gehiengoz finantzatzen bada, kudeaketa kontrolatzen bada edo administrazio-, zuzendaritza- edo zaintza-organoko kideen erdiak baino gehiago izendatzen baditu».
141. Ez dirudi zalantzarik denik AUKERAK erakundeak interes orokorreko beharrak asetzen dituela, hori da bere sorrerarekin lortu nahi den helburua; hala ere, horrek ez du eragozten etekinak lortzeko moduko jarduerak egitea, baina hori ez da bere helburua.
142. Bestalde, erakundeari euskal administrazio publikoen eta horien mendeko edo haiei lotutako sektore publikoaren bitarteko propio eta zerbitzu tekniko izaera esleitzearen ondorioz, jardueraren funtsezko zatia eginkizun hori betetzen duten erakundeentzat egiten da; AUKERAK agentziaren kasuan, badirudi jasotzen dituen enkarguak garatzea dela haren bokazioa, eta hori nekez da bateragarria bere jarduerak SPKLren aplikazio-eremutik kanpo uzteko izan behar duen industria- edo merkataritza-izaerarekin.
143. Ezingo da esan merkataritza-izaera nagusitzen dela berezko bitarteko gisa eraturako erakunde batean, eta, beraz, ezingo da esan ez dela jotzen botere esleitzzaileak; izan ere, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA) berretsi duenez, merkataritza-jarduera baten kasuan ere, interes orokorrekoa bada, botere esleitzzaileak jotzen da –1998ko azaroaren 10eko EJJAren Epaia; Auzia: C-360/96. BFI Holanda–.



144. Hori esanda, gaineratu behar da, halaber, ezin dela mugatu erakundearen jarduera, industria- edo merkataritza-jarduera baten esparruan hertsiki garatzen den zatia eta industria- edo merkataritza-izaerarik ez duten interes orokorreko beharrak berariaz asetzen dituen zatia bereizteko.
145. Europar Batasuneko jurisprudentziak bereizketa hori baztertu du; izan ere, erakunde berean industria- edo merkataritza-jarduerak eta izaera hori ez duten beste batzuk batera egiten direnean, erakunde hori kontratazioari buruzko zuzentarauaren mende dago bere eskuratze guztietan, eta ez da garrantzitsua jarduera batzuen edo besteen ehuneko negoziaren bolumen osoan, eta ezin da bereizi eskuratzea merkataritzakoa den edo merkataritzakoa ez den jarduera baten esparruan gertatzen den (1998ko urtarrilaren 15eko EBJAren Epaiä; Auzia: C-44/96). Beste interpretazio bat «segurtasun juridikoaren printzipioaren aurkakoa izango litzateke; izan ere, printzipio horrek eskatzen du arau komunitario bat argia izatea eta haren aplikazioa aurreikusteko modukoa eragindako guztientzat».
146. Enkarguaren hartzaile diren erakundeek SPKLren 32.7 artikulua araberä jasotako enkargua gauzatzean egiten dituzten negozio juridikoei buruzko arau espezifikoek ez dute zerikusirik administrazio-kontratazioarekin; izan ere, artikulua horrek ohartarazten du kontratua lege honen mende geratuko dela, bidezkoak diren baldintzetan, kontratua egiten duen erakundearen izaeraren araberä eta horien mota eta balio zenbatetsiaren araberä, eta, nolana ere, berezko bitartekoa ez denean botere esleitzailerik bat, legearen hirugarren liburuko I. tituluko edukia aplikatuko zaizkio – egiazki, administrazio publikoa ez den botere esleitzailerik, SPKLren 3.2 artikulua araberä; izan ere, titulu horrek administrazio publikoaren izaera ez duten botere esleitzailerik kontratuak arautzen ditu–.
147. Manu horren araberä, bitarteko propioak hirugarrenekin kontrata ditzakeen prestazio partzialen zenbatekoaren muga ez da izango enkarguaren zenbatekoaren ehuneko 50 baino handiagoa, baina ez dira prestazio partzialtzat hartuko bitarteko propioak beste enpresa batzuetatik eskuratzen dituenak, prestazio nagusiaren zati autonomo eta bereizgarria ez diren hornidurak edo zerbitzu lagungarri edo instrumentalak direnean, nahiz eta prestazio hori emateko beharrezkoa den prozesuaren zati izan.
148. Hala ere, muga hori ez da aplikatuko kasu hauetan: (i) emakida bat enkargatu zaien baliabide propioek egiten dituzten obra-kontratuetan, horiek obrakoak zein zerbitzuetakoak izan; (ii) zerbitzu publikoaren kudeaketa xede horretara bideratutako zuzenbide publikoko erakundeak sortuz egiten denean, ez eta kudeaketa hori zuzenbide pribatuko sozietate bati esleitzen zaion kontratuetan ere, baldin eta horren kapitala, oso-osorik, titulartasun publikoa bada; eta (iii) administrazio publikoari zerbitzu informatiko eta teknologikoak emateko –horren xedea sare eta sistemen bateragarritasuna, komunikagarritasuna eta segurtasuna, informazioaren osotasuna,



fidagarritasuna eta konfidentzialtasuna bermatzea denean– enkargua eman zaien bitarteko propioek kontratuak egitean, eta telekomunikazioak sustatzeko, informazio-gizarte eta gizarte digitala garatzeko funtzioak dituzten bitarteko propioek egiten dituzten kontratuen kasuan ere.

149. Salbuespen gisa, kontratazio-ehuneko hori gainditu ahal izango da bitarteko propioari egindako enkargua oinarritzen denean segurtasun-arrazoietan, prestazioaren izaeran –prestazioa gauatzeko kontrol handiagoa behar den kasuetan– edo presazko arazoietan –presazko arazo horiek prestazioa arinago gauatzea eskatzen duten kasuetan–. Inguruabar horiek gertatzen direlako justifikazioa enkargua formalizatzeko agiriarekin batera aurkeztuko da, eta dagokion Kontratazio Plataforman argitaratuko da, harekin batera.

150. Konstituzio Auzitegiaren hitzetan, honela adierazten da aipatu epaian:

Baliabide propioei enkarguak egitea saihestu nahi da, azpikontratazioaren edo kanporatzearen bidez sektore publikoko kontratuen Legearen aplikazioa saihesteko mekanismo gisa, horrek enpresaburuen arteko lehia askearen oinarritzko printzipioari kalte egiten baitio. Xede hori indartu egiten da manua aldatu ondoren, muga horrek eragiten ez dituen kasuak barne hartzen baititu (kontratuaren xedea kontuan hartuta, bigarren eta hirugarren lerroak), edo ehuneko handiagoa ezartzea ahalbidetzen baitu, segurtasuneko edo urgentziazko arazoak badaude (laugarren lerroak). Beraz, materialki oinarritzkoa den arau batez ari gara mintzatzen; arau horrek ez du autonomia-erkidegoaren esku-hartzea eragozten –dela 100eko 50etik beherako ehuneko finkatuz, dela ehuneko hori gaindi daitekeen salbuespenezko kasuak zehaztuz–, eta ez dio, halaber, autoantolaketarako ahalmenari kalte egiten; izan ere, nahiz eta, administrazio publikoen aldetik tratamendu komuna bermatzeko, arau bat ezarri –ingurune propioaren kanpo-funtzionamenduaren alderdi bat baldintzatzen duena–, horiek sortzea, aldatzea edo ezabatzea, nolana ere, autonomia-erkidegoari dagokio, kontratazioaren alorrean dituen eskumenen babesean (Konstituzio Auzitegiaren 165/1986 epaia, 6. OJ; 55/1999 epaia, 3. OJ, eta, 142/2018 epaia, 6. OJ). Bidezkoa da, beraz, aurkaratzea ezestea.

151. Erakunde instrumentalaren deklarazio formalari dagokionez, bitarteko propio bat da eta euskal administrazio publikoen zerbitzu teknikoaren mende egiten du lan, eta horrek berarekin dakar enkargu teknikoak egitea, alde bakarretik finkatutako jarraibideei jarraituz, nahitaez. Beraz, etxe barneko enkargu horiek ez dute kontratu-izaerarik; izan ere, *in house providing* etxe barneko enkarguei dagokienez, zerbitzu horien beraien gainean egiten den kontrolaren antzekoa dago.



152. Laburbilduz, lege-aurreproiektua SPKLren 32. artikuluan dago implementatua, eta honela dio: «Botere adjudikatzaileek beren burua antolatu ahalko dute obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuen eta obra- eta zerbitzu-emakidako kontratuen berezko prestazioak zuzenean emateko beste pertsona juridiko batez baliatuta, hari alde zuzenetik mandatua emanda eta tarifa bidezko ordain baten truke; horretarako, artikulua honetan xedatutakoari jarraituko diote, eta betiere erabiltzen duten pertsona juridikoak, zeina zuzenbide publikokoa zein zuzenbide pribatukoa izan baitaiteke, beren bitarteko propio pertsonifikatuaren kalifikazio juridikoa merezi behar du, hurrengo hiru apartatuetan xedatutakoarekin bat, eta, hala badagokio, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean Estatuaren eremuko bitarteko propioetarako ezarritako baldintzak bete beharko dira. Baldintza horiek betetzen dituen enkargua ez da hartuko kontratuzat».
153. Manu horren idazketa Europako jurisprudentziatik abiatuta egin da honako auzi hauei, besteak beste, jarraikiz: Teckal, C-107/98, 1999ko azaroaren 18ko Epaia; Stadt Halle, C-26/03, 2005eko urtarrilaren 11ko Epaia; Carbotermo eta Consorzio Alisei, C-340/04, 2006ko maiatzaren 11ko Epaia; eta Tragsa, C-295/05, 2007ko apirilaren 19ko Epaia.
154. Egungoa Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24 (EB) Zuzentarauaren 12. artikulua transposizioa da, eta, SPKLren zioen azalpenaren arabera, izan nahi du Administrazioaren «berezko bitartekoa» deritzonaren erregulazio berri bat, kudeaketa-gomendioak edo «in house» izeneko teknikaren aplikazio praktikoa, orain «berezko bitartekoei egindako enkarguak» deituko dena.
155. Legean, kontratazioari buruzko zuzentarau berriaren gidalerroei jarraituz, «erakunde horiek bete beharreko eskakizunak areagotu egin dira, eta, beraz, zuzeneko esleipenak saihesten dira, lehia askearen printzipioa kaltetu dezaketenak. Hor betekizun batzuk ageri dira, hala nola “berezko bitarteko” izaera duen erakundeak baliabide pertsonal eta material egokiak izatea egiten zaion enkargua betetzeko, bere mendeko botere esleitzzailearen baimena jaso izana, enpresa pribatu baten partaidetzarik ez izatea eta merkatuan bere jardueraren ehuneko 20 baino gehiago askatasunez egin ezin izatea».
156. Hasiera batean, lege-aurreproiektuak izaera hori esleitzen dio AUKERAK agentziari, eta ez dugu hori zalantzan jartzeko arrazoirik, baina ez dira ahaztu behar SPKLren 32. artikuluan xedatutako eskakizunak.
157. Aurreproiektuak dio AUKERAK «Euskal Administrazio Publikoen eta horien mendeko edo haiei lotutako sektore publikoaren» berezko bitarteko eta zerbitzu tekniko gisa eratzten dela. Eskumenen azterketan, erakundeak gauzatuko duen jardueran euskal administrazio publiko guztiek partekatzen duten interes publiko bat dagoelako ideia funtsatu dugu. Horiek guztiek bazterkeria-egoerak prebenitzeko eta horiei erantzuteko zereginetan parte hartzen dute, eta pertsonen gizarteratzea sustatu behar dute. Dena den, zalantzarik gabe, askatasunaz gabetutako pertsonen kasuan, interes horri erantzutea



Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagokio batez ere, hark baitu espetxe-legeria betearazteko eskumena.

158. Hala ere, berezko bitarteko pertsonifikatutzat hartzen direnez bi botere esleitzailerik edo gehiagori dagokienez, zeinak independenteak baitira elkarrekiko, bete beharreko baldintzak SPKLren 32.4 artikuluan ezarritakoak dira:

Sektore publikoko erakunde zehatz bakar baten bitarteko propio pertsonifikatutzat hartuko dira ondoren ezartzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituzten zuzenbide publikoko zein zuzenbide pribatuko pertsona juridikoak:

- a) Mandatuak eman ahal dituen botere adjudikatzailerik horien hartzailea den enterearen gainean kontrol bat izatea, zuzeneko zein zeharkakoa, bere zerbitzu edo unitate propioekiko duenaren antzekoa.

Baterako kontrol bat izateko, honako baldintza hauek guztiak bete behar dira:

1. Mandatuaren hartzaile den enterearen erabakitze-organoetan ordezkaritza izatea hari mandatuak eman ahal dizkieten ente guztiak; halakoetan, ordezkaririk bakoitzak azken horietako batzuk edo guztiak ordezkatu ahal ditu.
2. Azken horiek zuzenean eta batera eragin erabakigarria eduki ahal izatea mandatuaren hartzaile den enterearen helburu estrategikoei eta erabakirik garrantzitsuei buruz.
3. Mandatuaren hartzaileak ez izatea mandatuak eman ahal dizkieten enteen interesen aurkakoak diren interesak.

Ordaindu beharreko konpentsazioa ezartzeko, tarifa hauek hartuko dira erreferentziatzat: bitarteko propio pertsonifikatuak nagusi duen erakunde publikoak onetsita dauzkanak bitarteko propioak zuzenean egiten dituen eta mandatuaren xede diren jardueretarako. Eta, horretarako, mandatuaren xede diren eta enpresaburu partikularrekin azpikontratzen diren jardueretarako bitarteko propioak jasandako egiazko kostuari erreparatu zaio, erregelamenduz erabakitzen den eran erreparatu ere, kostu hori txikiagoa denean azpikontratutako jardueri tarifak aplikatzen heldu dena baino.

Tarifa horiek, betiere, bitarteko propioak zuzenean ekoiztiko unitateak egiteko benetako kostuak jasotzeko moduan kalkulatu dira.



b) Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 baino gehiago egin daitezela hura kontrolatzen duten botere adjudikatzaileek –edo botere adjudikatzaile horiek bere kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek– emandako eginkizunak betez. Ehuneko 80 hori artikuluko honen 2. apartatuaren b) letran ezarritakoaren arabera kalkulatu da.

c) Artikulu honen 2. apartatuko c) eta d) letretan ezarritako baldintzak betetzea.

159. SPKLren 32.2 artikuluko c) eta d) letrek honako hau diote:

c) Mandatuaren hartzailea den entea pertsonifikazio juridiko pribatuko ente bat denean, gainera, haren kapital edo ondare guztiak titulartasun edo ekarpen publikokoa izan beharko du.

d) Mandatuaren hartzaile den erakundeak berariaz aitortu beharko du, bere estatutuetan edo sorrera-ekintzetan, mandatu ematen duen botere adjudikatzaile jakinaren bitarteko propio pertsonifikatua dela, honako baldintza hauek bete ondoren:

1.a Zer botere adjudikatzailekiko bitarteko propioa izango den, haren adostasuna edo berariazko baimena.

2.a Erakunde publikoak egiaztatu beharko du bere bitarteko propioa izango den ente horrek giza baliabide eta baliabide material egokiak dituela mandatuak beren xede sozialaren arabera betetzeko.

Mandatuaren hartzaile den entearen estatutuek edo sorrera-ekintzak honako hauek zehaztu beharko ditu: enteak izaera hori zer botere adjudikatzailekiko duen, eta eman ahal zaizkion mandatuen araubide juridiko eta administratiboa zein den. Gainera, estatutuek edo sorrera-ekintzak bitarteko propioari debekua ezarriko diote bere botere adjudikatzaileak deitutako lizitazio publikoetan parte hartzeko –halere, lizitatuak bakarrenean ere aurkeztu ez denean, mandatu eman ahal izango zaio enteari lizitazioaren xede diren prestazioak emateko–.

Letra honen 2. zenbakian ezarritako baldintza, nolahi ere, enteak dauzkan talde, azpitalde eta kategoriei dagokien sailkapena lortu duenean pentsatuko da betetzen dela.



160. Hori dela eta, estatutuetan onartzen diren gobernu-organoen eraketan bermatu beharko da baterako kontrola dagoela, eta mandatuak eman diezazkioketen erakunde guztiak egongo dira ordezkatuta; izan ere, zuzenean eta batera eragin erabakigarria izan behar dute mandatuaren hartzaile den erakundearen helburu estrategikoetan eta erabaki garrantzitsuetan.
161. Nolanahi ere, legeak SPKLren 32.2.d).1 eta 32.2.d).2 artikuluetako eskakizunak gainditzeko aukera ematen duela pentsa daiteke, baina Estatutuetan zehaztu beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, foru-aldundiek eta toki-erakundeek AUKERAK agentziari egin diezazkioketen mandatuen araubide juridiko eta administratiboa, eta ezartzea jaso ahal izango dituen tarifei lotuta egongo direla eta ezin izango duela berezko bitarteko pertsonifikatua den botere esleitzzaileak deitutako lizitazio publikoetan parte hartu, baina horrek ez du alde batera uzten lizitatzailerik aurkezten ez denean agentziari egin ahal izatea lizitazio horien xede diren prestazioak gauzatzeko mandatua.
162. Artikulu bakarraren 6. lerrokada **agentziako langileen araubide juridikoari** buruzkoa da, eta honako hau xedatzen du:
- AUKERAKeko lanpostuak hauek beteko dituzte: horretarako kontratatutako langileek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko edo haren mendeko erakundeetako langileek, lanpostu bakoitzari esleitutako eginkizunen izaeraren arabera.
- Ahal publikoak baliatzea edo interes orokorra zaintzea dakarten lanpostuak funtzionarioek bete beharko dituzte, eta langile horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzio publikoa arautzen duten arauak bete beharko dituzte.
- Agentziaren zerbitzurako kontratatutako langileek Lan Zuzenbidea izango dute arau. Agentziak ezarri eta deitutako onarpen-proben bidez kontratatuko dira langileak, publikitate-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera.
163. Testuak, lehenengo atalean, Autonomia Erkidegoko Administraziooko langileen, kontratatutako langileen eta langileen dualtasun bat jasotzen duenean, pentsa daiteke harreman juridikoen dualtasun bati buruz diharduela, hau da, agentziak zuzenean kontratatutako lan-kontratudun langileen eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioen dualtasunari buruz.



164. Hurrengo apartatueta jasotako bi mezuei dagokienez, hasiera batean zuzenbide pribatuko erakunde publiko bati ez zaizkio zuzenean aplikatu behar urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen Testu Bategina (EPOELTB), ezta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea (EFPL) ere.
165. Hala ere, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak lurralde-administrazioetako erakunde instrumentalak izanik –haiei lotuta daude edo haien mendekoak dira–, ahal publikoak baliatu ahal izango dituzte, eta, beraz, zalantzarik gabe koherentea da horiek funtzionario publikoek baliatzea Espainiako Konstituzioaren 103.3 artikuluko estatutu-araubide funtzionalaren arabera konstituziogileak egiten duen aukerarekin, ekainaren 11ko 99/1987 KAEak interpretatu zuenez, eta EPOELTBren 9.2 artikuluan eta EFPLren 19. artikuluan aurreikusitako funtzio-erreserbarekin.
166. Illdo horretan, egokitzat jotzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionario horiek berariaz aipatzea.
167. Erakundeak berak kontratatutako langileei dagokienez, langileak hautatzeko ezarritako arauak bat datoz EPOELTBren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoarekin: «Estatuko, erkidegoetako eta tokian tokiko sektore publikoan diharduten erakundeek, estatutu honetako 2. artikuluan sartuta ez badaude eta berariaz duten arautegian hala definituta badaude, 52., 53., 54., 55. eta 59. artikuluetan jasotako printzipioak aplikatu behar dituzte».
168. Xedapen gehigarriak honako hau aurreikusten du:
- Zuzenbide Publikoko *Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo* Estatuko Erakunde langileak AUKERAK agentziari atxikitzen zaizkio, uztailaren 6ko 169/2021 Dekretuan (zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia, espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko egitekoak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa) ezarritako baldintzetan, ekainaren 29ko 474/2021 Errege Dekretuan ezarritako baldintzetan.
169. Aipatu Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren Erabakiaren F) epigrafean hau aurreikusten da: «Eskualdatzen diren egiteko eta zerbitzuei atxikitako langileak eta lanpostu hutsak 3. zerrenda erantsian ageri dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren mendeko izatera pasako dira Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak eta kasu bakoitzean aplikagarri diren gainerako arauak legez aurreikusitako baldintzetan, eta langile-espeditanteetan zehaztutako inguruabar beretan».



170. 3.2 zerrenda erantsian, Zuzenbide Publikoko *Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo* Estatuko Erakundeko funtzionarioak ageri dira, eta horiek eskualdatzen dira.
171. Atxikipenaren xede diren langileen zehaztapenari dagokionez, Auzitegi Gorenaren 2006ko martxoaren 13ko Epaiak (RJ 2016/1763), Auzitegi Gorenaren 2006ko maiatzaren 10eko Epaiak (RJ 2006/2352) errepikatua, gogorarazi behar da:

Funtzio publikoa arautzen duen esparru juridikoa zehazte aldera, Estatuko funtzionarioak autonomia-erkidegoetako administrazioa transferitzeari dagokionez, lehenik eta behin, Estatuko Administrazio Orokorraren eginkizunak eta zerbitzuak autonomia-erkidegoei eskualdatzeko errege-dekretuen esanahia eta helburua adierazi behar dira. Horien edukia Prozesu Autonomikoari buruzko urriaren 14ko 12/1983 Legearen 18.2 artikuluan aipatzen da, eta, Sala honen 2004ko uztailaren 22ko Epaian deklaratu dugunez (RJ 2004, 4251), «Konstituzioaren VIII. tituluaren ezarritako Estatuaren lurralde-antolamenduaren eredu berrirako igarobidea formalizatzen dute, eta, horregatik, salbuespeneko egintza dira.

Prozesu autonomikoaren adierazle dira eta prozesu horren ezaugarri nagusiak dira, batetik, administrazio autonomiko berriak eratzea eta haien funtzionamendua hastea, eta, bestetik, Estatuko Administrazio Orokorra aldi berean berregituratzea.

Prozesu horren oinarritzko printzipioa da dauden funtzionarioen arrazoizko erabilera (Konstituzio Auzitegiaren abuztuaren 5eko 76/1983 Epaiak, berrogeita bigarren oinarria).

Administrazio-eraginkortasunaren printzipioa ere kontuan hartu behar da (103. artikulua). Horren arabera, ahalik eta gehien ekidingo da transferentzia-mekanismoak nahasmendurik sor dezan eskualdatu beharreko zerbitzuen ohiko funtzionamenduan.

Hala ezartzen du Prozesu Autonomikoari buruzko urriaren 14ko 12/1983 Legearen 22.1 artikulua; izan ere, horren arabera, prozesu autonomikotik ondorioztatzen den Estatuko Administrazioaren berregituratzea gastu publikoaren ekonomiaren, eraginkortasunaren, deskontzentrazioaren eta koordinazioaren konstituzio-printzipioak betez egingo da.

Laburbilduz, esan daiteke Estatuko funtzionario bat autonomia-erkidego batera eskualdatzea prozesu autonomikoaren baitako jarduketa bat dela, eta horren egitate gaitzaile zehatza dela eragindako funtzionarioa transferitutako zerbitzuak ematen



dituzten Estatuko organoetara atxikita egotea eta transferitutako zerbitzu horien funtzionamendurako beharrezkoa izatea; arrazoi horregatik, funtzionario horrentzat salbuespenezko eta nahitaezko jarduketa bat da, baina ez ditu aldatzen bere estatutu profesionalaren oinarriko alderdi objektiboak; eta, hura determinatzen duen xede objektiboaren ondorioz, ez dago eskualdatu beharreko eskubide subjektibo bat, kalterik egin gabe eskualdatze horrek berdintasunaren konstituzio-printzipioari datxezkion betekizunak betetzeko derrigortasunari (EKren 14. artikulua EE [LBK 1978, 2836]).

Aurreko guztiak azaltzen du, transferitutako zerbitzuen estatu-organoei atxikitako funtzionarioei egiten diena dela-eta, hura eskualdatzeak nahitaezko izaera izan dezakeela eta transferitutako funtzionarioaren berme nagusia administrazio autonomikoan atxikia izatea dela, bere kategoriarik eta kidego edo eskalari dagokion lanpostu batean (lehen aipatutako Prozesu Autonomikoari buruzko urriaren 14ko 12/1983 Legearen 24. eta 25. artikuluetan ezarritakoaren arabera).

172. Prozesu Autonomikoari buruzko Legearen aipamenak, gaur egun, EPOELTBren 88.2 artikulua eta EFPLren 36.2 artikulua eta bigarren xedapen gehigarriaren aurreikuspenekin osatu behar dira.
173. Transferitzen diren Estatuko *Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo* zuzenbide publikoko erakundeko funtzionario horiek, transferitzen diren funtzioak betetzeko beharrezkoak direnez, AUKERAK agentziari atxikita geratu behar dira, beraz.
174. Nolanahi ere, ekidin liteke uztaillaren 6ko 169/2021 Dekretua eta ekainaren 29ko 474/2021 Errege Dekretua aipatzea, aurreproiektuaren edukia apalagoa delako, transferentziatik eratorriak diren ondorioetatik abiatzen da, zeina arau horien arabera egin baita segur aski, eta hura AUKERAK erakundeari atxikitzea soilik xedatzen du, erakundeak jarduerak sortu eta hastearekin batera; beraz, nahikoa litzateke honako hau adieraztea: «*Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo* zuzenbide publikoko estatu-erakundearen zerbitzuak ematen zituzten funtzionario transferituak AUKERAK erakundearen hasiko dira lanean».
175. Azken xedapenetatik lehenak aurreikusten duenez, agentzia atxikitzen zaion saileko sailburuaren aginduz erabakiko da **AUKERAK agentziaren jarduera noiz hasiko den**, lege hori indarrean sartu eta gehienez ere bi hilabeteko epean, eta, nolanahi ere, 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen.



176. Batzordeak ulertzen ditu preklusio-epe horren –2022ko urtarrilaren 1a baino lehen– arrazioak, baina, egia esan, galderak sorrarazten ditu «nolanahi ere» esamoldea adierazten delako legearen indarraldiaren data gorabehera –eta indarraldi horri dagokionez, EHAAn argitaratu eta hurrengo eguna ezartzen da– eta ordura arte mandatu hori ezin izango litzatekeelako eskatu ere egin.
177. Gainera, ez dirudi beharrezkoa denik; izan ere, egokiagoa da abian jartzeko eta jarduerak hasteko dataren ezarpena agentziaren Estatutuak onartzen dituen dekretuan kokatzea.
178. Horrela, posible izango da, halaber, erakundearen organoak eratzea eta bere eginkizunak betetzeko behar dituen giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzea; data horrek ez du zertan aipatutako 2022ko urtarrilaren 1a baino geroago izan.
179. Ordura arte, eraginkortasun mugatuko araua da; izan ere, data gainditu ondoren ere –bai Estatutuen hasierarena bai onespenerarena– horrek ez du ekarriko Gobernuaren desahalduntzea, eta, era berean, ez du ekarriko, beranduago bada ere, erabaki hori gauzatzea eta dagokion estatutu-araua ematea.
180. Azkenik, 3. apartatuko mezuak ez dirudi beharrezkoa, defendatzen dugun logikaren arabera. Gainera, kasu horretan ez litzateke egongo bereizketarik jatorriko administrazioaren eta barneratuen lan-harremanak eskatzen duen enplegatzailearen artean.

IV ARAUGINTZA-TEKNIKA

181. Batzordeak uste du proiektua, oro har, bat datorrela 1993ko martxoaren 23ko Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez onartutako lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak lantzeko jarraibideekin (Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko Legearen hirugarren xedapen gehigarriari jarraiki aplika daitezke jarraibide horiek).
182. Hala eta guztiz ere, honako oharpen hauek egin dira, teknikoki bukatuagoa den arau-produktu bat lortzeko.
183. Zioen azalpenean, arau batzuen eta besteen aipamena osorik egin behar da, zenbakia, data eta izendapena adierazita.
184. Gainera, honako hauei aipamen bat egitearen falta igartzen da: 474/2021 Errege Dekretua, ekainaren 29koa, espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko esparruan Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen dizkion eginkizun eta zerbitzuei buruzkoa; eta 169/2021 Dekretua, uztailaren 6koa, zeinaren



bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia, espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko egitekoak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa.

185. **Gaztelaniazko bertsioan**, generoari dagokion bat-etortzeak eskatzen du femeninoan ematea zioen azalpeneko bosgarren lerrokadako «empleadores» substantiboa, «estos» izenordain erakuslea eta artikulua bakarreko 7. lerrokadako «necesarios» adjektiboa.
186. Testu artikulatua artikulua independenteen bidez osatu behar da, eta komenigarria da artikulua horiek tituludunak izatea, eta ez zenbait lerrokada biltzen dituen artikulua bakar baten bidez.
187. **5. lerrokadaren in fine-an**, «pruebas de admisión» esamoldearen ordeaz, «pruebas de selección» jarri beharko litzateke.
188. **Artikulu bakarraren 8. lerrokadaren «establecido previsto»** ageri da eta bi partizipioetako bat aukeratu behar da.
189. Xedapen gehigarria bakartzat kalifikatu behar da eta izenburua eman behar zaio. Haren idazketa hobetu daiteke, «ezarritako baldintzetan» esamolde bera errepikatzen baita bi arauak aipatzean; nahikoa litzateke «eta» juntagailu kopulatiboa.

Comentado [MT1]: "Gaztelaniazko bertsioan" gehitu diogu, euskarazko testuan zentzua emateko iruzkin horri.

Comentado [MT2]: Iruzkin hau gaztelaniazko bertsioari buruzkoa denez, gaztelaniazko esamoldeei eutsi diegu.

Comentado [MT3]: Iruzkin hau gaztelaniazko bertsioari buruzkoa denez, gaztelaniazko esamoldeei eutsi diegu.

ONDORIOA

Batzordearen irizpenaren arabera, erreferentziako lege-aurreproiektua Gobernu Kontseiluaren menpe jar daiteke, onar dezan.

Eta hala ziurtatzen dut, Gasteizen, 2021eko uztailaren 29an, Batzordeburuaren oniritziarekin, jakin eta kontuan har dadin. Era berean, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 30.2 artikulua xedatzen duen betebeharrak gogorarazi nahi dugu: azkenean onartzen den xedapen edo ebazpena batzorde honi komunikatu behar zaio, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren antolamendu eta funtzionamenduaren Erregelamenduaren 34. artikulua xedatzen duen moduan eta epean (irailaren 12ko 167/2006 Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori).

O. E.:



Jesús María Alonso Quilchano,
Idazkaria

Sabino Torre Díez,
Batzordeburua

Elektronikoki sinatua